

Prentsa oharra

Nota de prensa



BALANTZE ONA, DONOSTIAKO HONDARTZA-DENBORALDIA AMAITUTA

Hondartza-denboraldia amaitu da, eta sasoiaren ezaugarri nagusia izan da ohiko zerbitzu guztiak normaltasunez eskaini direla berriro. Denboraldiaren balantzea ona da, uda osoan erabiltzaile-kopurua **handia** Donostiako hondartzetan, batez ere oso eguraldi ona egin duelako.

Miguel Ángel Díez Hiri Azpiegituren eta Zerbitzuen zuzendariak azpimarratu du hondartzetara jende asko etortzeak proban jarri dituela bertan eskaintzen diren zerbitzuak, hondartzetan murrizketak ezarri behar izan ziren bi urteen ondoren. Nolanahi ere, okupazioa eta erabiltzaileen kopurua ona izan arren, hondartzak ez dira iritsi 2019an erregistratutako mailetara.

Denboraldia hasi aurretik, ez zen beharrezkoa izan hondar-mugimendu handirik egitea; hori bai, hiru hondartzetara eta kabinetara sartzeko eremuak hustu egin behar izan ziren, eta hondarraren kota ere jaitsi egin zen, zerbitzuetara errazago iristeko.

Zurriolan, bainularientzako eta surfzaleentzako espazioak bereizten dira, eta aurten kexak ugaritu dira, bainatzeko espazioa txikiegia zela esanez. Udala harremanetan jarri da dagoeneko surf-eskolekin, kirol hori hobeto arautzeko.

Prentsa oharra

Nota de prensa

HONDARTZETAKO GARBIKETA-LANAK

Egunero, hondartzak mantentzeaz eta garbitzeaz arduratzen den enpresak horretarako 25 langile izan ditu. Hondartzetan egunero bahetu da hondarra, egur-puskak eta elementu flotatzaileak bildu dira, zabor-edukiontzia eta birziklatzeko hondakin-edukiontzia hustu dira, eta hegialak, gabarroiak zein uharteko eremua urez garbitu dira.

Hauek dira garbiketari eta hondakinei buruzko datuak, iazkoekin alderatuta:

HONDAKIN-MOTA	2021	2022
ERREFUSA	234.570 kilo	413.294 kilo
BEIRA	1.088 kilo	4.231 kilo
ONTZIAK ETA PLASTIKOA	24.160 kilo	34.046 kilo
PAPERA	1.487 kilo	950 kilo
ORGANIKOA	657 kilo	1.349 kilo
EGURRA		63.080 kilo
PARDELAK	15 kilo (lehenengo urtea)	18 kilo
ELEMENTU FLOTATZAILEAK	1.368 kilo	1.400 kilo

Hondartzak garbitzeko eta mantentzeko lanetan, honako ibilgailu hauek erabiltzen dira:

- Bahegailudun traktore bat hiru hondartzetarako
- Bahegailudun beste traktore bat, astelehenetan eta ostegunetan pasatzen dena, garbiketa-zerbitzua indartzeko
- Sare fineko bahegailu bat zotzak, zigarrokinak eta abar biltzeko
- Egur-puskak eta hondakin handiak biltzeko kamioi bat
- 2 pick-up, Ondarretan eta Kontxan hondakin-poltsak jasotzeko
- Gurdi traktore bat, Zurriolan hondakin-poltsak jasotzeko
- Ibilgailu elektriko bat, arratsaldean poltsak jasotzeko
- Beldar mekaniko bat, uhartean poltsak jasotzeko
- Itsasontzi bat, badian elementu flotatzaileak biltzeko eta gabarroiak garbitzeko
- Itsasontzi bat uhartea garbitzeko eta hondakinak garraiatzeko
- Kamioi bat hondakinak tratamendu-zentrora eramateko

Gainera, hondartzetan 245 zaborrontzi daude guztira, dagokion kolorearekin identifikatuta, bildu edo birziklatu beharreko hondakinaren arabera.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Salbamenduari eta sorospenari dagokienez, aurten egurrezko dorre berriak jarri dira hondartzetan —askoz ere praktikoagoak eta irisgarriagoak— zerbitzu hori emateko.

Aurten, nabarmen murriztu da erreskateen eta ebakuatutako pertsonen kopurua, baina galdutako pertsonen kopuruak gora egin du eta gehienak haurrak izan dira.

	2021	2022
Osasun-laguntzak	1.132	1.331
Erreskateak	123	93
Ebakuatuak	103	67
Galdutako pertsonak	105	215
Lagundutako bainu-zerbitzua	390	394
Makulu-zerbitzua	101	102

Hondartzetako aldagela-zerbitzua

	Kontxa	Ondarreta	Zurriola
Dutxen eta giltzadun armairuen erabilera-kopurua, guztira	45.200 2021. urtean 16.932	18.366 2021. urtean 15.369	7.255 2021. urtean 4.601
Kontsignak	8.401 2021. urtean 5.240	3.443 2021. urtean 2.269	980 2021. urtean 686

Hondartzetako Toldo eta Eguzkitako Zerbitzua

Azken bi urtetan zerbitzu hori eskaini gabe egon ondoren, aurten zerbitzua oso-oso-eman da.

- Kontxako hondartzan, jarritako 440 toldoak erabili dira.
- Ondarretan, eskuragarri egon diren 98 karpetatik 63 erabili dira, eguzkitako guztiak (198) eta eskuragarri egon diren 424 toldoetatik 409.

Prentsa oharra

Nota de prensa

- Zurriola hondartzan, eskuragarri egon diren 240 toldoetatik 167 erabili dira.

Era berean, aipagarria da “soberan” geratu ziren horietako asko egunka alokatu direla, erabiltzaileek hala eskatuta.

Donostiako hondartzek kalitate-eskakizun handienak betetzen dituzte, hala nola Europako EMAS ingurumen-ziurtagiria eta ISO 14001 kalitate-ziurtagiria, eta, astero, bainatzeko uraren osasun-kontrola egiten da hiru hondartzetan. Zerbitzuei, mareei, korronteei, bainu-eremuen banaketari eta kirola egiteko eremuen banaketari buruzko seinaleak ere jartzen dira hiru hondartzetan.

Eta udako denboraldia amaituta, urriaren 1a eta maiatzaren 31 bitarte, txakurrak berriro ere hondartzetan sartu ahal izango dira. Hori bai, Gizabideari buruzko Ordenantza kontuan hartuz, txakurren jabeek haien gorozkiak jaso behar dituzte, bai bide publikoetan, bai hondartzetan, eta betebeharrak hori ez betetzeak 50 eta 200 euro arteko isunak ekar ditzake.

